


# HIRU HARTZ

Marisa Núñez
Minako Chiba
Itzultzailea: Ainhoa Mendiluze

**IRAILA 2021**

*Hiru hartz* folklore-istorio anonimoa da. Robert Southey poeta britainiarrak egin zuen ezagun, 1837an. Ordutik moldaketak eta egokitzapenak ugariak izan dira mundu osoan.
Ipuin tradizionalean oinarrituta eta intimitatearen ideia nagusi horretatik urrundu gabe, Txo! bildumaren *Hiru hartz* honek narratzailearen eta irakurlearen arteko lotura bat eraikitzen du, haurra hartzekin identifikatuta sentitu, eta, horren bidez, atxikimendu bat sor dadin. Album honek, jokabideen eta afektibotasunaren garapenean eragiteaz eta sentiberatasun literario eta artistikoa estimulatzeaz gain, tresna ezin aproposagoa da kontzeptu matematikoak transmititzeko, tamainari dagozkion nozioak ulertarazteko (handia, ertaina eta txikia) edo animalien eta haien ingurunearen arteko loturak egiteko.
Horregatik guztiagatik, *Hiru hartz* liburuak inplikazio aktiboa eskatzen du, irakurleak beraren usteak liburukoekin kontrastatu beharko baititu, eta, horrela, bere buruaz eta inguruko munduaz duen jakintzan sakonduko baitu.

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

ISBN: **978-84-18252-80-8**
ORRIALDEAK: **36**
NEURRIAK: **25 x 23**
PREZIOA: **16,25 €**

4 urtetik aurrera

+XO!

**Nabarmentzekoak:**
- Ipuin tradizionalean oinarritua.
- Erantzukizunari, autonomiari eta askatasunari keinuak.
- Sentiberatasun literario eta artistikoa.
- Kontzeptu matematikoak: handia, ertaina eta txikia.

**MARISA NÚÑEZ**
(Sarria, 1961) autore galegoa da. Tradiziozko ipuinak berridatzi izan ditu gehienbat, eta album formatuan argitaratu, nahiz eta badituen testu propioak ere. Bere ezaugarri nagusietako bat da ahozko hizkera darabilela, maiz testuak entzungarri bihurtzeraino.

**MINAKO CHIBA**
Arte Ederretan eta Musikan lizentziatua da Tokioko unibertsitatean. Egun diseinatzailea da, japoniar brodatuan aditua. Hala ere, ilustrazio lanak ere egiten ditu, tartean, haurrentzako liburuak. Detaile askoko ilustrazioak dira bereak, koloretsuak neurrian.



**AUTOREAREN BESTE LAN BATZUK:**













9 788418 252808

txalaparta
Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus